

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2025eko otsaila

Aurkibidea

1. EAEko hazkundera
2. Lan merkatua
3. Inflazioa
4. Enpresarien konfiantza
5. Inguruneko hazkundera
6. NDFren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,1 hazi zen 2024an.

Enplegua %1,8 hazi zen eta 17.000 lanpostu berri baino gehiago gehitu zizkion ekonomiari.

2. Enplegu tasa %71 izan zen laugarren hiruhilekoan.

Langabezia tasa %7,1ean amaitu zen 2024an.

3. Inflazioak %3,6an amaitu zuen 2024. urtea.

Erregaien eta turismoaren garestitzeak azaltzen dute igotera hori.

4. EAEko enpresek konfiantza handia erakusten dute urtearen hasieran.

Hasi berri den hiruhilekoari buruzko aurreikuspenak oso baikorrak dira.

5. Munduko ekonomiak erresilientzia handia erakutsi zuen 2024an.

Lan merkatuaren sendotasunak eta interes tasen jaitsierak ekonomia bultzatu dute.

6. NDFk hazkunde neurritsua aurreikusten du munduko ekonomiarentzat datozen urteetan.

AEBetarako hazkundera gorantz berrikusi eta beherantz, berriz, eurogunekoa.






EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %2,1 hazi zen 2024an

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Urte arteko aldakuntza tasa

4. HIRUHILEKOA
%1,9




Eustatek argitaratutako kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %2,1 hazi zen 2024an, aurreko urtean baino sei hamarren gutxiago, baina bere hazkunde potentziala baino pixka bat gehiago oraindik. Halaber, urteko batez besteko balioak bi hamarrenetan gainditzen du Ekonomia Zuzendaritzak urrian egin zuen aurreikuspena. Hazkundearen tamaina nabarmenagoa da Europako ekonomiek erakusten duten ahultasuna kontuan hartzen bada.

Laugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak urte arteko %1,9ko hazkunde tasa eskuratu zuen, hau da, aurreko bi datuak baino hamarren bat gutxiago bakarrik, eta, beraz, ia urte osoan zehar egonkortasun handiko irudia eman du. Egonkortasun hori hiruhileko arteko aldakuntza tasek hartzen dituzten balioetan ere hauteman da, azken urte eta erdian %0,4 eta %0,6 artekoak izan baitira. Zerbitzuak dira emaitza on horien oinarria.

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

4. HIRUHILEKOA
%0,4




ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa

4. HIRUHILEKOA

%1,6

Lan merkatuari dagokionez, urte osoa kontuan hartuz, enplegua, lanaldi osoko lanpostu balio-kideetan neurtuta, %1,8 areagotu zen, aurreko urteko tasa bera lortuz. Kopuru horren ondorioz, 17.000 lanpostu berri baino zertxobait gehiago sortu ziren eta EAEko ekonomian aurretik zeuden lanpostu kopuruari gehitu behar zaizkio. Horrek urteko batez besteko zifra ia 988.000 lanpostutan uzten du, eta EAEko ekonomiak inoiz izan duen kopururik handiena izatera pasatzen da.




Hiruhileko bakoitzeko urte arteko aldakuntzak adierazten du enpleguaren sorrera biziagoa izan zela urtearen lehen erdian, eta bigarrenaren erritmoa moteldu egin zela %1,6ra arte, oraindik ere oso garrantzitsua den tasa baita. Hiruhileko arteko aldakuntza %0,4koa izan zen urteko lau aldietatik hirutan. BPGaren eta enpleguaren bilakaeren ondorioz, itxurazko produktibitatearen irabazia hiru hamarrenera soilik mugatu zen, aurreko urtean lortutako bederatzia hamarrenetatik urrun.

ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

4. HIRUHILEKOA

%0,4



Iturria: Eustat.

Enplegu tasa %71 izan zen laugarren hiruhilekoan


ENPLEGU TASA. 16-64 URTE

BITARTEKOA.

Ehunekoak

4. HIRUHILEKOA

%71,0




Eustatek argitaratutako estatistika informazioak adierazten du 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren enplegu tasak hobera egin duela, azken hiru hiruhilekoetan %71,0 inguruan kokatu baita, hamarren batetik gorako edo beheranzko aldaketa txikiekin. Horrek urteko batez bestekoa %70,7an uzten du, 2023an erregistratutako %69,9aren gainetik, eta azken urteetako mailarik handiena ezarriz. Sexuaren araberako analisiaren

arabera, igo egin da bai gizonen artean, bai emakumeen artean. Hala, emakumeen urteko batez besteko okupazio tasa 2023ko %66,8tik iazko %67,6ra igo zen, eta gizonei zegozkien tasak, berriz, %73,0koak eta %73,9koak izan ziren. Beraz, bi sexuen arteko aldea hamarren bat handitu da, eta orain 6,3 puntukoa da. Azken hiruhilekoan, gizonen tasa murriztu egin zen, eta emakumeena handitu; beraz, arrakala 5,5 puntura murriztu zen.

ENPLEGU TASA 16-64 BITARTEKOA.

EMAKUMEA


Ehunekoak



ENPLEGU TASA 16-64 BITARTEKOA.

GIZONAK

Ehunekoak




Langabezia tasari dagokionez, aldagai hori % 7,1ean mantendu zen laugarren hiruhilekoan, 2023ko hiruhileko bereko datua baino hamarren bat beherago soilik. Tasa jaitsi egin da gizonen artean, baina emakumeen tasak izan zuen igoerarekin konpentsatu da. Laugarren hiruhilekoko ehunekoak %6,5 eta %7,7 izan ziren, hurrenez hurren.

Bestalde, nazionalitate espainiarra duten pertsonen langabezia tasa %6,0 inguruan egonkortu da, eta atzerritarrena, berriz, murriztu egin da.


LANGABEZIA TASA. GUZTIRA

Ehunekoak




LANGABEZIA TASA. EMAKUMEAK

Ehunekoak




LANGABEZIA TASA. GIZONAK

Ehunekoak




LANGABEZIA TASA. ESPAINIARRAK

Ehunekoak



LANGABEZIA TASA. ATZERRITARRAK

Ehunekoak



Iturria: Eustat.




INFLAZIOA

Inflazioak %3,6an amaitu zuen 2024. urtea

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Joan den abenduan, EAeko urte arteko KPIa %3,6an kokatu zen, azaroko datua baino zazpi hamarren gorago, eta, horrela, hiru hilabetez jarraian goranzko joera erakutsi zuen. Inflazioaren portaera hori erregaien prezioetan izandako igoerak eta, neurri txikiagoan, turismoaren prezioen gorakadak eragin zuten.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2023	2024	2024ko abendua	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,6	3,1	3,6	3,6
Azpiko inflazioa (%84,6)	6,2	3,2	3,3	2,8
- Elikagai landuak (%15,4)	12,5	4,6	4,8	0,7
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	1,2	1,2	0,3
- Zerbitzuak (%49,0)	4,3	3,5	3,7	1,8
Hondar inflazioa (%15,4)	-6,4	2,6	5,0	0,8
- Landu gabeko janariak (%6,5)	7,3	4,0	2,6	0,2
- Energia (%8,9)	-17,0	1,0	6,7	0,6


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



ELIKAGAIEN PREZIOA


Urte arteko aldakuntza tasa



Egia bada ere azken hilabeteko igoera handiena izan zela maiatzean erregistratutakotik (%3,9ra igo zen hileko horretan), 2023. urtea amaitu zen %3,6tik behera egon zen, eta are urrunago 2022an lortutako %8,0tik. Prezioen garestitze hori jada ez da eboluzionatzen inflazio krisi batean bezala, alegia elikagaien prezioek bi digituko igoerak markatzen zituztenean. Gaur egun,

ZERBITZUEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



elikagaien inflazioak igoera neurritsuak izaten ditu, eta urtea %3,6an itxi da, inflazio orokorren erregistro berean, eta moderazio horretan bereziki garrantzitsua izan da olioaren prezioen bilakaera. Aitzitik, zerbitzuen inflazioa berriro bizkortu zen, aurreko apaltzearen ondoren, eta azpiko inflazioak puntu erdi bat egin zuen gora, %3,3raino.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa

	Euskadi Abendua	Espainia abendua	Euskadi urteko batez bestea	Espainia urteko batez bestea
INDIZE OROKORRA	3,6	2,8	3,1	2,8
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,6	1,8	4,5	3,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	7,0	5,0	4,3	4,0
Jantziak eta oinetakoak	1,5	0,5	1,0	0,9
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	8,3	7,4	3,7	3,6
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,4	0,6	1,5	0,8
Osasuna	2,4	1,9	2,7	2,0
Garraioa	0,9	0,6	0,9	0,7
Komunikazioak	0,2	0,1	0,1	0,1
Aisia eta kultura	4,4	3,2	2,4	2,5
Hezkuntza	2,4	2,5	2,3	2,8
Jatetxeak eta hotelak	3,8	4,1	4,3	4,8
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	3,8	3,4	3,7	3,2

Iturria: INE eta Eurostat



ENPRESARIEN KONFIANTZA


EAEko enpresek konfiantza handia erakusten dute urtearen hasieran

INEk argitaratutako enpresen konfiantzari buruzko inkestaren arabera, EAEko enpresek konfiantza hobetu zuten 2025eko lehen hiruhilekoan, nahiz eta ingurune ekonomikoaren ezaugarri nagusia ziurgabetasun handia eta Europako herrialdeetako ahulezia izan. Hain zuzen ere, epealdian lortutako balioa 137,5ekoa da, bi hiruhileko lehenago erregistratutako 138,8ak baino ez


baitu gainditzen. Alde batetik, enpresek 2024ko laugarren hiruhilekoari buruz egiten duten balorazioa serie historikoko positiboenetako bat da, aldeko erantzunek kontrako erantzunak nabarmen gaindituz. Beste aldetik, hasi berri den hiruhilekoari buruzko igurikimenak azken urteetako bigarren onenak dira.

ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. EUSKADI


1. HIRUHILEKOA
137,5



AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA




HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. ESPAINIA


1. HIRUHILEKOA 137,0




Estatu osorako lortutako balioak antzekoak dira. Horrela, lehen hiruhilekoaren balioa 137,0koa da, serie historikoko altuenetakoa hori ere. Estatuan aldakuntza txikiagoak hautematen dira hiruhileko batetik bestera, eta, oro har, goranzko joera leuna dago. Adierazi behar da gaur egungo posizioa, bai Euskadin, bai Estatuan, pandemiaren aurretik erregistratu zena baino baikorragoa dela.

Estatuan, aurreko hiruhilekoaren itxiera ere ona izan zen, hiruhileko hori ona izan zela uste duten enpresen kopurua kontrakoa pentsatzen dutenean baino handiagoa izan zelako. Horiek horrela izanda, saldoa 11,3koa izan zen, serie historikoaren baliorik handiena. Bestalde, oraingo hiruhilekoari buruzko igurikimenak positiboak dira, baina azken hiruhilekoetan apur bat hoztu dira.

AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



Iturria: INE.

INGURUNEKO HAZKUNDEA


Munduko ekonomiak erresilientzia handia erakutsi zuen 2024an

AEBETAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

AEBETAKO BPGA 2024

%2,8



2024an, nazioarteko ekonomiak erresilientzia handia erakutsi zuen. Orain arte ezagutu diren datuen arabera, munduko BPGa %3,0 baino zertxobait gehiago hazi zen. Gorakada hori lan merkatuen sendotasunak, familien erosteko ahalmena hobetzeak eta finantza baldintzak erlaxatzeko igurikimenek bultzatu zuten. Aldi berean, inflazioak beheranzko joerarekin jarraitu zuen, eta urtea moneta agintariek ezarritako helburuetatik gertu amaitu zen, apur bat gorago bada ere. Hala eta guztiz ere, eskualdeen artean ezberdintasun handiak nabaritu ziren.


AEBetan, jarduera ekonomikoa egonkor mantendu zen eta %2,8 hazi zen, kontsumoaren eta inbertsio pribatuaren indarrari eta lan merkatuaren sendotasunari esker. Aldiz, Txinan, barne eskariaren ahuleziak, laugarren hiruhilekora arte gobernuaren estimulurik ezak, konponbiderako itxurarik gabeko higiezinak eta familien konfiantza faltak eragin negatiboa izan zuten jarduera ekonomikoan, %5,0 hazi baitzen. Emaitzak gobernuaren igurikimenak bete bazituen ere, hazkunde erritmoari eusteko oinarri sendorik eza berriro ere agerikoa izan zen.

TXINAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa


TXINAKO BPGA 2024

%5,0




EBKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa



EUROGUNeko BPGAREN HAZKUNDEA


Urte arteko aldakuntza tasa



Hala ere, Europar Batasuna eta eurogunea izan ziren kaltetuenak, ez baitzuten suspertze esanguratsurik lortu. Frantzia, Joko Olinpikoen bultzadari amaiera eman ondoren, moteldu egin zen azken hiruhilekoan (hiruhileko arteko uzkuradura ere jaso zuen), eta horrek urteko hazkundea %1,1era murriztu zuen. Alemania, berriz, bigarren urtez jarraian uzkurtu zen. Industriaren zailtasunek, enpresen porroten gorakadak eta esportaziorako aurreikuspen ilunek BPGa oztopatu zuten berriro. Aldiz, Espainiako ekonomia positiboki nabarmendu zen eta %3,2 handitu zen, Europako batez bestekoaren oso gaitetik, eta hazkunde orekatua erakutsi zuen, agregatu guztien ekarpen positiboek esker.


ESPAINIako BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa




FRANTZIako BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa



ALEMANIako BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGA, BEA, Eurostat eta INE.




**Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila**

NDF-REN AURREIKUSPENAK

NDFk hazkunde neurritsua aurreikusten du munduko ekonomiarentzat datozen urteetan

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




NDFren azken aurreikuspenek egonkor eusten diete datozen urteetarako munduko ekonomiaren hazkunde igurikimenei. Hala ere, herrialdeen arabera bereizita, zenbatespen berriek aldaketa esanguratsuak islatzen dituzte hainbat ekonomiaren hazkunde dinamikan. AEBentzat eskariaren bultzadak 2025ean jarraituko duela aurreikusten da, ekonomia bere potentzialaren gainetik hedatuz. Aitzitik, euroguneko ekonomien hazkundera beherantz berrikusi da.

NDF-REN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2024	2025	2026	2025	2026
Munduko ekonomia	3,2	3,3	3,3	0,1	0,0
Ekonomia aurreratuak	1,7	1,9	1,8	0,1	0,0
AEB	2,8	2,7	2,1	0,5	0,1
Eurogunea	0,8	1,0	1,4	-0,2	-0,1
Alemania	-0,2	0,3	1,1	-0,5	-0,3
Frantzia	1,1	0,8	1,1	-0,3	-0,2
Italia	0,6	0,7	0,9	-0,1	0,2
Espainia	3,1	2,3	1,8	0,2	0,0
Erresuma Batua	0,9	1,6	1,5	0,1	0,0
Japonia	-0,2	1,1	0,8	0,0	0,0
Garatzen ari diren herrialdeak	4,2	4,2	4,3	0,0	0,1
Txina	4,8	4,6	4,5	0,1	0,4
India	6,5	6,5	6,5	0,0	0,0
Errusia	3,8	1,4	1,2	0,1	0,0
Brasil	3,7	2,2	2,2	0,0	-0,1


EKONOMIA AURRERATUEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Manufakturen eta esportazioen sektorearen zailtasunek azaltzen dute igurikimeneen jaitsiera hori, eta Alemaniako ekonomiaren kasua da garrantzitsuena, 2025eko aurreikuspena bost hamarren gutxitu baita, eta inguruko ekonomiak arrastaka eramaten baititu. Hala eta guztiz ere, Alemaniako kasuan eta euroaren eremuko ekonomia guztietan, 2025eko aurreikuspenak 2024rako aurreikusitako emaitzaren gainetik daude oraindik, barne eskaera indartsuagoari, konfiantza handiagoari eta diru politika ez hain murriztaileari esker.

Garapen bidean dauden ekonomiei dagokienez, NDFk ez du uste Txinako ekonomia %5etik gora haziko denik berriro, 2026ko zenbatespena lau hamarren hobetu arren, nazioartean merkataritza politikan izandako aldaketei lotutako ziurgabetasuna neurri batean murriztu ondoren.

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.



ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2023		2024			
			III	IV	I	II	III	IV
BPG	2,7	2,1	2,5	2,3	2,2	2,0	2,0	1,9
Barneko azken kontsumoa	1,7	--	1,1	1,8	--	--	--	--
Familien kontsumoa	1,9	--	1,2	1,9	--	--	--	--
Administrazioaren kontsumoa	1,3	--	0,8	1,8	--	--	--	--
Kapital eraketa gordina	1,8	--	1,5	2,0	--	--	--	--
Barne eskaria	3,1	--	2,6	3,1	--	--	--	--
Esportazioak	1,0	--	0,7	1,3	--	--	--	--
Inportazioak	1,8	--	1,2	1,9	--	--	--	--
Lehen arloa	1,0	--	0,3	-1,6	--	--	--	--
Industria eta energia	-0,2	--	-1,3	-2,0	--	--	--	--
Eraikuntza	2,6	--	2,3	1,8	--	--	--	--
Zerbitzuak	3,0	--	2,7	2,3	--	--	--	--
Balio erantsi gordina	2,8	--	2,6	2,3	--	--	--	--
Ekoizkinen g/ zerga garbiak	1,7	--	2,0	2,2	--	--	--	--
Enplegua	1,8	1,8	1,8	1,9	2,0	1,9	1,6	1,6

Oharra: Hiruhilekoko desagregazioa eguneratu gabe dago Eustaten aldetik.
2023ko aurrerapena eta 2024ko behin-behineko datuak.

EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Abendua

2024											
Urtar.	Otsa.	Mart.	Apir.	Maia.	Eka.	Uzta.	Abuz.	Iraila.	Urria	Azaroa	Abend.
83,6	82,0	84,5	91,4	97,4	99,3	96,4	95,9	98,8	95,1	97,9	96,3
X<50 Atzeraldia			50<X<100 Hazkunde leuna				X>100 Hazkunde bizia				

EAEko ekonomiaren termometroak 96,3ko balioa izan zuen abenduan. Kalkuluen arabera, kanpo saldoak hobera egin zuen eta, aldi berean, kapital eraketa gordinak beste hilabete batez hazkunde nabarmena erakutsi zuen. Bestalde, kontsumo pribatuaren tonua zertxobait apalagoa izan zen, nahiz eta oraindik positiboa izan, eta horrek azaltzen du indizearen jaitsiera txikia. Sektoreen ikuspegitik, nahiz eta EAEko industria bere helburuko merkatu nagusien egoerak kaltetzen jarraitzen duen, zerbitzuen sektorearen balio erantsia- ren eta enpleguaren sorrera biziak EAEko ekonomia gorarazten segitzen du.

ESTADÍSTICA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

ABENDUKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2024	2025				2025	2026
	IV		I	II	III	IV		
BPG	1,8	1,9	1,8	2,0	2,1	2,0	2,0	1,7
Barneko azken kontsumoa	1,8	1,9	1,9	2,0	2,1	2,0	2,0	1,6
Familien kontsumoa	1,6	1,8	1,9	2,0	2,1	2,0	2,0	1,6
Administrazioaren kontsumoa	2,2	2,2	1,8	2,1	1,9	1,8	1,9	1,6
Kapital eraketa gordina	2,0	1,9	2,1	2,5	2,6	2,6	2,4	2,6
Barne eskariaren ekarpena	1,8	1,9	1,9	2,2	2,2	2,1	2,1	1,9
Kanpo eskariaren ekarpena	0,0	0,0	-0,2	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1
Lehen arloa	-3,4	1,1	-3,3	-3,0	-0,9	0,7	-1,7	1,3
Industria	0,6	0,8	1,0	1,8	1,4	1,5	1,4	1,6
Eraikuntza	2,0	1,6	2,1	2,5	2,2	2,1	2,2	2,3
Zerbitzuak	2,3	2,3	2,0	2,1	2,3	2,1	2,1	1,7
Balio erantsi gordina	1,8	1,9	1,7	2,0	2,1	2,0	1,9	1,7
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,1	2,1	2,3	2,1	2,3	2,1	2,2	1,9
Lanaldi osoko lanpostuak	1,5	1,7	1,4	1,4	1,5	1,4	1,4	1,2
Landunak (BJA)	1,8	1,9	1,5	1,5	1,2	1,2	1,3	1,0
Langabezia tasa	7,2	7,4	7,3	6,8	6,6	6,7	6,9	6,7

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025		2024	2025
Ceprede	2,5	1,7	Eusko Jaurlaritza	1,9	2,0
Hispalink	2,5	2,2	Laboral kutxa	1,9	1,8
BBVA	2,4	2,4	Confebask	1,8	1,8
Funcas	2,3	—	Euskal Ganbarak	—	2,2

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2023		2024		
			IV	I	II	III	IV
BPG	2,7	3,2	2,3	2,7	3,3	3,5	3,5
Kontsumo pribatua	1,7	2,8	3,0	2,1	2,5	2,9	3,7
Kontsumo publikoa	5,2	4,9	5,0	5,4	4,1	5,1	4,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,1	2,3	4,7	1,8	2,3	1,4	3,6
- Aktibo finko materialak	2,4	2,5	4,8	1,4	2,7	1,9	4,1
- Eraikuntzan	3,0	2,6	3,9	1,8	2,6	2,9	3,0
- Ekipamendu ondasunetan	1,1	2,3	6,3	0,5	2,7	0,0	6,1
- Jabetza intelektualaren produktuak	1,0	1,2	4,1	3,8	0,7	-0,8	1,3
Nazio eskaria (ekarpena)	1,7	2,8	2,7	2,3	2,5	2,8	3,5
Esportazioak	2,8	2,9	0,7	1,7	2,6	4,6	3,0
Inportazioak	0,3	2,0	2,3	0,7	0,7	3,2	3,4

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025		2024	2025
AFI	3,1	3,1	CEPREDE-UAM	3,0	2,3
BBVA Research	3,1	2,6	Funcas	3,0	2,3
Cámara de Comercio de España	3,1	2,1	Intermoney	3,0	2,1
CEEM-URJC	3,1	2,3	Mapfre Economics	3,0	2,3
CEOE	3,1	2,2	Universidad Loyola Andalucía	2,9	2,5
Equipo Económico (Ee)	3,1	2,4	CaixaBank Research	2,8	2,3
EthiFinance Ratings	3,1	2,4	Batez bestekoa	3,1	2,4
ICAE-UCM	3,1	2,3	Espainiako Bankua (2024-12)	3,1	2,5
Instituto Estudios Económicos	3,1	2,3	AIReF (2025-01)	3,1	2,5
Metyis	3,1	2,1	NDF (2025-01)	3,1	2,3
Oxford Economics	3,1	2,4	Europar Batzordea (2024-11)	3,0	2,3
Repsol	3,1	2,1	ELGA (2024-12)	3,0	2,3
Santander	3,1	2,3	Espainiako Gob. (2024-12)	2,7	2,4

Iturria: Funcas.



ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2023		2024		
			IV	I	II	III	IV
AEB	2,9	2,8	3,2	2,9	3,0	2,7	2,5
Txina	5,2	5,0	5,2	5,3	4,7	4,6	5,4
Japonia	1,7	—	0,9	-0,9	-0,9	0,5	—
Kanada	1,5	—	1,2	0,8	1,1	1,5	—
Europar Batasuna	0,4	0,8	0,3	0,6	0,8	1,0	1,1
Eurogunea	0,4	0,7	0,1	0,4	0,5	0,9	0,9
Alemania	-0,3	-0,2	-0,2	-0,1	-0,2	-0,3	-0,2
Frantzia	0,9	1,1	1,2	1,4	1,0	1,2	0,7
Erresuma Batua	0,4	—	-0,3	0,3	0,7	0,9	—
Italia	0,7	0,5	0,3	0,3	0,7	0,5	0,5
Herbehereak	0,1	—	-0,6	-0,7	0,6	1,9	—

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2025EKO URTARRILA Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025
AEB	2,8	2,2	3,0	2,6	4,1	4,3
Japonia	-0,1	1,2	2,7	2,3	2,5	2,4
Kanada	0,3	1,7	2,4	2,0	6,3	6,7
Europar Batasuna	1,0	1,2	2,8	2,1	—	—
Eurogunea	0,7	1,0	2,4	1,9	6,4	6,5
Alemania	-0,2	0,4	2,3	2,0	6,0	6,2
Frantzia	1,1	0,7	2,4	1,4	7,3	7,6
Erresuma Batua	0,8	1,2	2,5	2,6	4,3	4,5
Italia	0,5	0,7	1,0	1,7	6,6	6,3
Espania	3,0	2,3	2,8	2,1	—	—
Herbehereak	0,9	1,5	3,1	2,8	—	—

Iturria: Consensus Forecast.